

Hitzak auzolanean

Uztailaren 19an eta 20an Poesia Egunak antolatu dituzte Ean bosgarren aldiz. Herriari Emon Arnasa kultur elkarteak lanari ekin ziotenetik –hastapenetan Literatura Eskolarekin elkarlanean– jende asko pasa da antolatutako hitzaldi, mahai-inguru, errezitaldi eta ikuskizumetan parte hartzera. Nolabaiteko elkargune bilakatu da Eako uztailleko hitzordua, neurri handi batean antolatzaileek gonbidatuen harrerari eta edukien kalitateari eskaintzen dioten arretagatik.

OIER GUILLAN

ORAIN BOST URTE ekimen hau abiatzeko akuilua zehatza izan zen, Asun Landa antolatzaileak oroitzen duenez: “Gabriel Aresti poeta eta euskaltzale ezaguna Ean bizi izan zen bere azken bi urteetan, eta poema ederrak idatzi zituen bertan: *Eako koplak*, *Enaren begiak*... Orain dela bost urte bere testigua hartu genuen eatarrok, pentsatzen dugulako zorra kitatu behar dugula poeta handiarekin, eta berak idatzitakoa ezagutu eta ezagutarazi”.

Bi egunez parte hartzaileek Eako giroan murgiltzeko eta, nahi izanez gero, poesiaren ildoan elkarbizitzeko aukera izaten dute. Idazle zein poesiak, herria gora herria behera ibiltzen dira bi egunetan, eta horrek aukera ematen du beste-lako literatura ekitaldien egitarau ofizialek ezohikoak diren ekimenak gauzatzeko. Aurten Eako burdinola zahar eta paper fabrikaren hondakinetatik ibilbide poetikoa egingo dute, kasu. Landaren esanetan “toki hauek sinbolikoki erabiliko ditugu, hondatuta dauden eraikuntza hauetan irakurriko ditugu Arestiren poemak, *Euskal Harria* adibidez. Paper fabrikak ere idazleontzat eta langileontzat sinbologia berezia dauka. Batzuetan, liburuak boterearen gustukoak ez direnean, paper oreka baino ez dira izaten, arrisku hori daukate”.

Auzolana

Hitz bat eta bakarra aukeratu behar bagenu Eako poesia egunen antolakuntza definitzeko, “auzolana” hartu behar genuke ezinbestean. Landak berak erabiltzen du hitz hori: “Auzolana izaten da urtero hau antolatzea, herriko eszenatokiak prestatzea, instituzioei diru eske joatea... literaturak partaideak ere behar ditu bizirauteko, ez izen handikoak bakarrik, Ean guztiok tokia izatea nahi dugu: idazle, musikari, antzerkilari, irakurzaile, poesiak... horregatik aurten egitarauan herritarren izenak eta idazleenak elkartuta agertzen dira”.

Egun biko elkarbizitzan trukatu dituzte denek, idazleak zein herritarrek, hitzak, eztabaidak, gogoetak eta aldarriak. “Literaturak sortzen duen plazera aldarrikatu nahi dugu hemendik gaiak debatituz, giro naturalean, partekotasunean... baina astindu bat emateko gaur egungo huskeriari, fribolitate absolutuari”. Auzolana ez da antolakuntza lanekin bukatzen gainera: irakurketa kolektiboak edo taldeen partaidetzak nagusitzen dira sarri Eako poesia egunetan.

Aurtengo egitarauari dagokionez larunbatean Koldo Izagirreren *Emakumeak trenan hartu zueneko* hitzaldiarekin abiatuko da, mahai-ingurua izango da arratsaldean *Poesia extra zer den* tituluraren itxaro Borda, Jose Luis Otamendi, Castillo

Suarez eta Beñat Sarasolaren eskutik, Miren Ibarluzeak gidatuta. Gauean *Poesiazko ilara* izango da, hamaika lagunek euren poemak irakurriko dituzte zuzeneko musikaren laguntzaz, eta amaitzeko Zinar Ala kurduren musika eta kantak entzun ahal izango dira. Igandean berriz *Idazlearen abotsa norentzat, zertarako?* izeneko mahainguruan Iñigo Aranbarri, Irati Jimenez eta Eider Rodriguez mahaia- ren bueltan ariko dira, Xabier Mendi- gurenak gidaturik. Eguerdian Itxaro Bordak poesia errezitaldia eskainiko du Eako Talan. Arratsaldean berriz, *Katamalo* ikuskizunaz gozatzeko para- da ere izango da.

Poesia jende gutxi irakurtzen duela esan ohi da, gutxi saltzen dela ere bai, baina etengabe antolatzen dira aste

kulturalak, jardunaldiak eta herriz herriko errezitaldiak. Gutxi ala asko, jendea etengabe elkartzen da poesiaren babesean, Eako egunak ere horren leku- ko. “Askorentzat erreferente literario bilakatzen ari dira egun hauek, eta hori apaltasunez diogu, ez dugulako inolako pretentsio ‘ofizialik’; are gehiago, giro alternatiboa aldarrikatzen dugu”. Poesiarekin gertatzen ahal den bezala, Ean ere sakontasunez bizitako gertutasuna posible delako, agian. ■



Neska bat iazko Eako Poesia Egunen kartelari begira. Aurtengo egitarauak ere erakurriko du baten baino gehiagoren arreta.